

## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



### Araotzeko irudi zaharrak

**O**rain dala 63 urte ataratako fotografia honeittan, **Araotzen auzotar asko** bizi zan artian. **Umiak eta gaztiak** ugari; **gizakume batzuk** ordurako Oñatiko **Garañeko fabrika**n ziharduein lanian, eguneroko fan-etorrixa, **Gastiasoro** txofer, kamioian egitten euela; **emakume gehixenak baserrixan** etxekeandre eta beste zeregin batzuetan. Familixak zabalak izaten ziralako, auzotik **kanpora alde egindakua**k be etziran gutxi: Legazpi, Aretxabaleta, Mondrague, Donostia edota Oñatiko kalera ez ezik, baita Txile eta Argentinara be.

**Hamarkada haretan**, 1953tik 1960ra bittartian, **azpiegittura inportantiak** burutu zittuain Araotzen: **pelotalekua** 1953an; Ugarandik Elizalderaiño **kamiño barrixa** 1956xan; eta **auzoko saloi-tabernia** 1959xan. Pelotalekua egin zanian, ez eguen artian elizaraiño **kamiñorik**, eta hartarako **materialak manduetan-eta** jaso bihar izan ziran betiko elizbidetik. Errotabarrin jaixotako konstruktore ezagunak, **Antonio Uriartek**, porlana, hareia eta gaiñetikua samurto osten araoztarrari, honeik auzolanian pelotaleku barrixa modutu egixein.

Zapatatik Ugaran arteraiño **kamiñua**, hiru kilometro eta erdiko ibilbide oso zaillarekin, 1930etik aurrera urratu zan. **Lehen-txuago be obra galantak** gauzatu ziran Araotz aldian modu harrigarrian, Modragueko **Zerrajeraren** mesederako: **Jaturabeko presia** haundiketia; kilometrotako **kanal luziak**; Aitzgain-Araotzako **urtegixa**; Saratxoko iturburutik **ura** Araotz-Urrutiko **ubidera jasotia**; Aitzulo azpittik zulatutako **tunela**, eta abar. Eta lan nekoso eta ikaragarri horreittan jarduteko biharrezkua zan **makinerixia eta tresnerixia paraje malkartsuetan** gora eruan bihar izaten euen, **kamiioen laguntasun barik**. Ba, Ugarandik Elizararaiño **kamiño-zatixak**, 800 metrokuak, 25 bat urte itxoin bihar izan eben. Egixa da, tartian gerra-urtiak eta gerraoste latza egon zirala.

Gaurko bi fotografixatan **1959ko martixaren 25ian** Araotzek bizi izan eben **gertakari inportantiaren bi xehetasun** agerketan xaku: batetik, hiru urte lehenago amaittu zan Ugarandik Elizondoraiño **kamiño-zatixaren inauguraziño ofiziala**; eta bestetik, eliza aurrian eta pelotaleku onduan eraiki barri zan **auzoko saloi-alkartiarena**. Ezkerrekuan Araotzeko parrokuak, **Jose Plazaolak**, ixipua eskuan dauela, **kamiño barrixa** bedeinkaketan dihardu; atzeko illaran, ezker-eskumatan, **auzoko zahar eta gaztiak**, eta erdixan **agintarixak**: ezkerretik eskumara, **Antonio Uriarte** kontzejala eta lan honein promotoria, **Jose López**, Araotzeko maixua, **Jose Maria del Moral**, Gipuzkoako gobernadoria, **Bizente Asuero**, diputaziño **presidentia**, eta **Reyes Korkostegi**, Oñatiko alkatia; atzeko illaran herriko beste kontzejal batzuk.

Eskumako argazkixan aittatu barri dittugun agintarixak ikusi geinke, **abadetxetik saloirako bidian**, azkenengo hau **bedeinkatu eta inauguraitteko asmotan**. Ixipu-ontzixa daroian monagillua **Pedro Zubia** da.

Fotografixok Jose Luis Plazaolak ataratakuak dira eta guri Joxe Anjel Urkiaren bittartez aillegau xaku. Argibidiak Joxe Anjelek berak eta Martin Mendizabalen **Araotz, albiste eta ohiturak** liburuak eskuratu doskue. Eskerrik asko.